Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

319

Otsailak 15, 2018

Euriak ere ez ditu Irungo Inauteriak galdu nahi izan

2 Irun atzo Irun Gaur
3 Berria -Stop Kaleratzeak
4-5 Argazki erreportajea: Inauteriak
6-7 Erreportajea: Sindikalismoa frankismoan
8 Kirolak: Irungo Maratoi Erdia
9 Kirolak: Ane Marcos arraunlariari elkarrizketa
10 Javier Agirre irundarrak Goya saria jaso du
11 Haurren leihoa
12 Gazteen lanak
13 Betti Gotti
14 Gazte informazioa
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

caser residencial

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

LARRUQUERT AGUIRRE, FERNANDO

Argazkilaria. Irunen jaio zen 1934an. Zinemagilea, muntatzailea eta zuzendaria ere izan zen. Bere hastapen artistikoek musikaren munduarekin dute lotura. Alaiki abesbatza sortu eta zuzendu zuen (1950), baita Irungo Kamera Abesbatza ere (1959). 1962an, Charles de Gaulle Frantziako presidenteak Frantziako Kultur Merituaren domina eman zion.

Zinemaren munduak erakarrita, Frontera Films ekoiztetxea sortu zuen, Nestor Basterretxearekin batera. Haien filmek, Ama Lurrek eta Pelotarik, besteak beste, euskal zinemagintzaren sorrera markatu zuten. 1974an Nepalen egon zen, Everestera egindako euskal espedizio bati buruzko dokumentala grabatzeko. 90eko hamarkadaren hasieran zinemagintza utzi zuen, argazkilaritzan jartzeko arreta guztia. 2016ko urrian zendu zen.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzilea:
Unai Oiartzun

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:
1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGUISTICA

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Haurdun dagoen emakume bat kalean utzi izana leporatu dio Stop Kaleratzeak-ek udalari

Sergio Corchón Gizarte Ongizatea arloko ordezkariak baieztatu du legediaren araberako neurriak hartu dituztela

Salaketa gogorrak egin ditu Stop Kaleratzeak plataformak otsailaren 2an, San Juan plazan emandako prentsaurrekoan. Mila Holgado udaleko Lehen Arreta arduradunaren dimisioa eskatu du, betebeharrekiko utzikeria egotzita. Haurdun eta gaixo dagoen emakume bat kalean utzi izana leporatu diote. Sergio Corchón Gizarte Ongizatea arloko arduradunak teknikariaren lana babestu du: "Salaketa larriak dira, neurrigabeak".

Urtarrilaren 23an iritsi zen haurdun dagoen emakumea Irunera, bikotekidearekin. Iluntzean ailegatu ziren, eta Hotzaren Dispositiboaren baitan, udalak Ospitale Zaharrean eskaintzen duen kanpaina aterpetxean egin zuten lo. Astebete zeramaten inguruan, eta beste bi udaletxetan ere egon ziren lehenago. Hurrengo egunean, elkarrizketa egin zieten Gizarte Ongizatea arloan: "Ikusi genuen bi pertsona horiek ez zeudela EAEn erroldatuta, eta ez zeudela bertako gizartean errotuta".

Corchónek argudiatu du, kasu horietan, gizarte zerbitzuetako eta etxebizitzako arautegien arabera, "larrialdietarako" baliabideak besterik ezin dituztela eskaini: Hotzaren Dispositiboko aterpetxea, Gizarte Jantokia eta Topagunea. "Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri gara, baina haiek eragozpen berdinak dituzte", argitu du Corchónek: "Momentu honetan, ezin diogu egoerari beste irtenbiderik eman".

Stop Kaleratzeak-ek azaldu du goiz hartan ondoeza sentitu zuela emakumeak, eta anbulantzian eraman behar izan zutela Donostiako Ospitalera. Denbora laburrean bueltatu zuten Irungo Gizarte Topagunera, ingresatu gabe. "Ez dagoenez erroldatuta, ez du osasun txartelik", azaldu du Ruth Lopez Stop Kaleratzeak-eko kideak. Kaleratzeen Aurkako Komisio Mistoan parte hartu zuen emakumearen bikoteak, Stop Kaleratzeak-eko kideen laguntzaz, emakumearen egoera salatzeko. Diagnosia egiterakoan, Lehen Arretako arduradunak "diskurtso arrazista" erabili zuela salatu dute: "Kasua salbuespen gisa hartzeak dei efektua eragin zezakeela argudiatu zuen".

"Baliabide bat kudeatzeko, arautegiaren arabera jokatu behar da beti"

Sergio Corchón,
Gizarte Ongizatea arloko ordezkaria

"Ezin dugu ulertu nola Irungo Udalak dituen emergentzia etxebizitzak hutsik egonik, egoera honek ez duen irtenbiderik"

Ramón Muñoz, Stop Kaleratzeak

Baliabideak erabiltzeko trabak

Sergio Corchónek nabarmendu du bera ere Komisio Mistoaren bilera hartan egon zela. Teknikaria babestu du: "Salaketak ez dira egiazkoak". Gizarte Ongizatea arloko arduradunak errepikatu du ezin dutela beste urratsik eman: "Baliabide bat kudeatzeko, arautegiaren arabera jokatu behar da beti". Stop Kaleratzeak-eko kideek kritikatu dute eskaera humanitarioei, datu hotzekin erantzuten diela beti administrazioak. "Ezin dugu ulertu nola Irungo Udalak dituen emergentzia etxebizitzak hutsik egonik, egoera honek ez duen irtenbiderik, ezin direlako pauso burokratiko batzuk eman", adierazi du Ramón Muñozek.

Emakumea herrikide baten etxean dago egunotan, Irunen, Stop Kaleratzeak-ek azaldu duenaren arabera. "Oinaze handia du, eta ezin du jan. Fetuaren osasunari eragin diezaioke horrek. Uste dugu egoera oso larria dela, eta arreta eskaini behar diotela", aipatu du Ruth Lopezek. Bikotekideak Hotzaren Dispositiboko aterpetxean lo egiten du. Eta biek Gizarte Jantokia eta Topagunea erabiltzen dituzte. Stop Kaleratzeak-ek gehiago eskatu du, alabaina: "Udalari exijitzen diogu emakumea eta bikotekidea larrialdi etxebizitza batean har ditzan, emakumea osatzen den arte, behintzat".

Inauteri

Ezkerrean, Inudeen eta Artzainen konpartsa, otsailaren 4an.

Eskuinean, Euskal Herri Inauteria, Puska Biltzea eta Inauterietako Desfilea, Inauteri asteburuan.

iak Irunen

Garai gogorragoak eduk

Klandestinitateari eta errepresioari aurre eg

Frankismo garaiko Irungo zenbait lantegiren irudiak.

Asko dira gaur egun sindikatuen lana zalantzan jartzen duten ahotsak. Politikarekin bezala, apatia sentipen bat zabaldu da haren inguruan. Mesfidantza eta haserrea ere bai, kasu batzuetan. "Denak berdinak direla esaten da, baina ez da egia", kexu da Felix Conte Irungo Langile Komisioak CCOO sindikatuko kide historikoa. Kritikoa da egungo langileriarekin: "Jendeak gehiago begiratzen dio norberaren buruari. Garai bateko konpromisoa eta elkartasuna galdu ditugu". Sindikatuen klandestinitatearen garaia ezagutu zuen Contek, frankismoko azken urteetan. Garai haietako oroitzapenak elkarbanatu ditu Arturo Rodríguez (CCOO), José María Díez (UGT) eta Ander Gilisagastirekin (LAB) batera.

Frankismoan zehar, erregimenaren oposizioko indar nagusien artean egon ziren sindikatuak. Ilegalak ziren, eta klandestinitatean aurrera eraman behar izan zituzten haien ekintzak. Organización Sindical Española edo Sindikatu Bertikala izan zen sindikatu legal bakarra 1940 eta 1977 artean, Espainiako estatuan. Lan harremanetako baldintzak erregimenak erregulatzen zituen, Lan Ministerioaren bidez. Hala ere, lantegiz-lantegi asanblada klandestinoetan egituratuta, langileen eskubideen alde jarraitu zuten Gerra Zibilaren ondoren legez kanpo geratutako sindikatuek, eta frankismoan zehar ezkutuan sortutako beste batzuek. CCOOk enpresa bakoitzeko zelula txikien bidez funtzionatzen zuela azaldu du Contek: "Tarteka elkarlanean aritzen ginen, eta koordinazioa martxan jartzen zen horretarako. Baina nahiko esporadikoak eta puntualak ziren une horiek".

Contek azpimarratu du, era berean, testuinguru sozio-politikoa kontuan hartuta, garaiko sindikalisten militantzia ez zela lan arloko aldarrikapenetara mugatzen: "Aldarrikapen politikoak ere baziren: biltzeko eta manifestatzeko eskubidea, amnistia, demokrazia. Lan arloko aldarrikapenak gainditzen zituzten, baina funtsezkoak ziren garai hartan". Trenbideetako sektoreko langilea zen Conte. Zaragozako lanbide heziketa eskolatik iritsi zen Irunera. Gaur egun hirian bizi da, eta bertakoa du familia. Baina gogoan du trenbideetako beste langile asko ez zirela horren ondo integratu. "Horrek esan nahi du Irunen errotuago zeuden enpresetako zelulekin harremana edukitzea ez zela erraza", arrazoitu du Contek. Arturo Rodríguez ere CCOOn ibili zen garai hartan, baina Palmera enpresan: "Amuteko kaputxinoetan edo La Sallen biltzen ginen, Palmerako zelulan, ez ginelako legalak".

Trantsiziora arte, alabaina, Irunen indar gehien zuen sindikatua Unión General de Trabajadores (UGT) izan zen. José Mari Díez sindikatuko kide beteranoak greba eta mobilizazioetan parte hartu zuen: "Gehienak hitzarmenak negoziatzeko helburuarekin egiten ziren. Patronalak eragozpen handiak jartzen zituen, eta horren aurrean, mugimendu handiak antolatzen ziren. Greba ilegalak ziren hasieran, eskubide hori ez zegoelako onartua". Frankismoa eta trantsizioa ezagutu zuten sindikalistek mirespenez gogoratzen dute garai hartako mobilizazio ahalmena. "Orduan ez zegoen internetik, whatsapp-ik edo sare sozialik. Nahikoak ziren paperezko ohartxoak mobilizazio handiak eragiteko. Elkartasun espontaneo hori pentsaezina da gaur egun, tamalez. Nahiz eta baliabide eta askatasun askoz gehiago eduki", azpimarratu du Felix Contek.

ki ditu sindikalismoak

gin zion langile mugimenduak frankismoan





Batasuna ez da betierekoa

Ezin ahaztu, gainera, garaiko errepresioa. “Bortitza zen, gogoan ditut maiatzaren lehenak”, aipatu du Ander Gilisagastik. Langile Abertzaleen Batzordeko (LAB) militantea da gaur egun, baina CCOOn ere ibili zen hasieran. “Frankismoan CCOOk Euskal Herrian egin zuen lana sekulakoa izan zen. Gaur egungo sindikalista askok ez lukete sinistuko”, aitortu du. 1974an LAB sortu zenean, CCOOtik iritsi ziren militanteetako asko. “Konpartitzen genituen oinarri batzuk, baina beste batzuk ez, bistan da”, argudiatu du Gilisagastik. Gaur egun espainolista izatea egozten dietela kritikatu du Felix Contek: “Ez nago ados. Nik uste CCOOk bokazio internazionalistagoa duela”.

Eztabaidak eta banaketak ere izan ziren, hortaz. 1975an, Sindikatu Bertikalaren erortzea aurreikusten zenean, estrategia ezberdinak hartu zituzten sindikatuek. CCOOk barrutik apurtzea zuen helburu, infiltrazioaren bidez. UGTk, aldiz, kanpotik egin nahi zuen. “Nik uste, azkenean, bien ekintzek balio izan zutela Sindikatu Bertikalarekin amaitzeko”, adierazi du José Mari Díezek. 1977an sindikatuak legeztatu zituen Adolfo Suarezen gobernuak. Urte hartan egin ziren lehen hauteskunde sindikalak, eta UGTko Jose Mari Díezek gogoratzen du “gogo handiz” parte hartu zutela. Irunen, hauteskunde horiek erakutsiko zuten Eusko Langileen Alkartasunak (ELA) ere hirian zuen pisua. Pluraltasun horrek, alabaina, zailtasunak ekarriko zituela azaldu du CCOOko Arturo Rodríguezek: “Abertzaleen eta abertzale ez garenon arteko banaketa arazoa izan da hemen. Garai batean, denon arteko batasunari esker sinatzen genituen hitzarmenak”.

Frankismoaren erortzean parte hartuta, helburu bat bete zuten sindikatuek. Trantsizioan eta ondorengo hamarkadetan zehar, hala ere, gogotik lan egin beharko zuten langileen eskubideen alde. Irunen, birmoldatze industrialak eta batez ere, aduanen amaierak, lan gatazka handiak eragingo zituen. Beste erreportaje zabal baterako materiala dago hor, ordea. Edonola ere, sindikalista beteranoek penaz ikusten dute gaur egun langile mugimenduak bizi duen egoera. “Desmobilizazioa orokorra da. Sistema kapitalistaren eta politika neoliberalen aurrerapenen ondorio dira. Mundu mailakoa da errealitate hori”, adierazi du Felix Contek. Gaur egun, manifestazioetara sindikatuetako ordezkariak besterik ez direla joaten salatu dute. Garai batean, langileen mobilizazio handiak egoten zirela nabarmendu du Ander Gilisagastik: “Jendeak lanpostuak arriskatzen zituen”.

Elkartasuna falta nabarmendu dute denek. Hala ere, “pazientzia” duela adierazi du Arturo Rodríguezek “Dena ziklikoa da. Gaur egun, lan baldintzak horren txarrak dira, nire ustez, langile klaseak berriro bat egin beharko duela, haren eskubideen eta duintasunaren alde egiteko”.

BATek inoiz antolatu duen ekimen handiena izango da Irungo Maratoi Erdia

Otsailaren 25ean egingo dute proba, eta 10km-ko ibilbide laburra ere egongo da

“Bi malda daude, baina luzeak eta eramangarriak dira”

“Gaur egun harremana hobea da udalekin eta udaltzaingoekin”

Ibon Muñoz, Super Amara BATeko kirol zuzendaria

Irungo Udalaren enkarguz antolatu du Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak Irungo Maratoi Erdia. “2014an beste esperientzia bat eduki genuen, baina ez zen nahi bezain ondo atera”, gogoratu du Pedro Alegre Kirola arloko ordezkariak. Zinegotziak azaldu du BAT elkartearen atea jo zuela udalak ondoren, antolakuntza egokiaren “bermea” delako. Hilabetetako lanaren ondoren, prest dago kirol ekitaldia. Otsailaren 25ean izango da, igande goizean. 21km-ko lasterketaz gainera, 10km-ko beste bat ere egongo da.

10:00etan irtengo dira bi lasterketak, Zabaltza plazatik. Helmuga San Juan plazan egongo da, Foru Kalea eta Kale Nagusiaren amaiera zeharkatuko dituen azken txanparen ondoren. Proba laburreko parte hartzaileek buelta bat emango diote zirkuituari, bigarrena, aldiz, maratoi erdiko korrikalariek. “Ibilbide erakargarria da. Irungo auzo gehienak zeharkatzen ditu”, adierazi du Ibon Muñoz Super Amara BATeko kirol zuzendariak: “Ahalik eta lauena izan dadin saiatu gara. Bi malda daude, baina luzeak eta eramangarriak. Ez dira pikoak”. Gipuzkoako Atletismo Federazioko epaileek egiaztatu dituzte distantziak.

Lasterketak hurrengo urteetan ere jarraipena izan dezan, parte hartzailea ahal bezain beste zaintzeko ahalegina egin du BATek: musika ibilbidean zehar, erbiak erritmoa markatuz, kontsigna, dutxak, tarteko denborak eta korrikalariaren poltsa betea, besteak beste. “Lasterketetarako inoiz egin dugun kamisetarik onena eskainiko dugu”, baieztatu du Muñozek. Izan ere, klubak orain arte antolatu dituen ekimenetan handiena da jada Irungo Maratoi Erdia. Sariekiko politika ez da aldatu, alabaina. “Kanpoko korrikalariak eskaini zaizkigu, baina herri lasterketa izan dadin nahi dugu”, azpimarratu du Ibon Muñozek. Hori dela eta, Leire Sport dendan gastatzeko baleak izango dira sariak.

Berritasun nagusiak

Ibilbidean zehar argazkiak aterako dituzten argazkilariez eta photocall-az gainera, helmugako bideoa ere egongo da lasterketan. Beste berritasun nagusia, Korrikalariaren Azoka izango da. Palmera Montero Gizarte Zentroan izango da, lasterketaren bezperan, goizez eta arratsaldez. Materiala probatzeko aukera egongo da, eta kirolarien interesekoak izan daitezkeen zenbait hitzaldi ere bai. Ibon Muñozek azpimarratu du boluntario kopuru handia beharko dutela antolakuntzan, 250 inguru. Interesa duenak batatletismo@gmail.com helbide elektronikora idatz dezake. Ordainsari xumea, kamiseta eta hamaiketakoa jasoko dute boluntario guztiek.

Lasterketarako izen emateei dagokienez, www.kirolprobak.com web gunean egin daitezke, edo Mendibil Merkataritza Gunean dagoen Leire Sport dendan, bestela. 28 euro balio du maratoi erdiko dortsalak, eta 16 proba laburrekoak. Orain arte, izena emandakoen %66k maratoi erdian parte hartuko du. Emakumezkoen parte hartzea %25 inguruan dabil.

Distantzia luzeko probak egin izan dira lehenago

Azken urteetan, distantzia laburragoetako lasterketak antolatu izan ditu Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Joseba Sarriegi klubeko kide beteranoak, aitzitik, gogorarazi du 70eko eta 80ko hamarkadetan dozena erdi maratoi erdi ere egin izan zirela, eta beste hainbeste maratoi. Gogoan du 1984an egin zela azken maratoia, Bidasoa Atletiko Taldea sortu zen urte berean, hain zuzen ere: “Espainiako Maratoi Txapelketa antolatu zuen garaiko Telesport klubak, Hondarribian egon ziren irteera eta helmuga, ibilbide lau bat bilatzearren”. Ordura arteko Espainiako maratoi marka onena lortu zuen Eleuterio Antonek, orduan (2:13).

Proba haren ondoren BAT sortu zen, eta aurrerantzean, pistako lehiaketetara bideratuko zituen indar gehienak. Azken aldian herri lasterketak antolatzen eskarmentua hartu du, hala ere, eta maratoi erdi bat antolatzeko erronkari heldu dio orain. “Egia da garaiak aldatu direla, eta orain harremana hobea dela udalekin eta udaltzaingoekin”, aipatu du Joseba Sarriegik. Gaiarekin lotuta, Pedro Alegre Kirol zinegotziak adierazi du ahalegin berezia egingo dutela lasterketak trafikoan izango duen eraginaren berri emateko.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK

Félix Manso
IBARLA

Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com

ANE MARCOS, arraunlaria:

“Kirolari izaten ikasi dut, erakutsi didatelako entrenamendu bakoitzak zertarako balio duen”

Hondarribiarra da Ane Marcos (1998), baina Santiagotarrak-en dabil arraunean, azken urteetan. Aurten, alabaina, herriko traineruan ere hasi da. Biak uztartzen dituen arren, aitortu du aulki mugikorra dela bere lehentasuna. Skiff edo bakarkako ontzia du helburu nagusi, baina aurten zortziko ontzian ere entrenatzen ari dira Santiagotarrak-eko emakumeak. Astean behin ateratzen da Marcos Hondarribiko traineruan, eta udaran, harekin lehiatzeko asmoa du.

Hondarribian hasi zinen arraunean?
Bai, 11-12 urterekin izan zen, udarako ikastaro batean. Bi aste hasieran, gero hilabete osoa. Ikasturtea hasi zenean ere animatu nintzen, eta orduz geroztik arraunean ibili naiz. Duela bi urte Santiagotarrak elkartera etorri nintzen.

Zergatik aldaketa hori?
Eztabaida izan genuen garaiko entrenatzailearekin. Taldekide askok arrauna utzi zuten, baina nik arraunean jarraitu nahi nuen. Santiagotarrak-era etorri nintzen, eta oso gustura nabil. Jendea ezagutzen nuen, ibai berdinean entrenatzen dugulako, eta adin berdintsukoak garelako asko. Entrenatzaileekin ere oso ondo, eta instalazioak primeran daude. Donostiako klubetan, adibidez, ez dute halako espaziorik.

Kirol zorrotza da, entrenamenduei dagokienez. Zenbat entrenatzen duzu?
Astean sei egun, atseden bakarrarekin, egunean pare bat orduz. Neguan, astean zehar gimnasioan, batez ere. Asteburuetan uretara ateratzen gara. Nik kirolari izaten ikasi dut hemen, ondo azaldu didatelako entrenamendu bakoitzak zertarako balio duen. Dena ez da arraunari tira egitea, besterik gabe.

Zenbateko garrantzia du taldeak?
Bakarkako kirola da, baina taldean entrenatzen da. Kideen babesak asko laguntzen du aurrera jarraitzeko. Estropadetara kanpora joaten garenean, asko eskertzen da hori. Gainera, lagunekin beste lekuak eta jendea ezagutzea oso ederra da.

Zein esperientzia gogoratzen duzu bereziki?
Txikitako lehenengo estropadak, edo Espainiako Txapelketa irabazi genuenekoa, kadete mailan, Hondarribiko laukoan. Duela bi urte Santiagotarrak-eko zortzikoarekin Espainiako bigarren izan ginenean ere, oso berezia izan zen. Denboraldi erdian probatu genuen, eta azkenean oso ondo atera zen.

Aurten ere ari zarete zortzikoan. Gipuzkoako Txapeldun gelditu zarete.
Bai, pixkanaka ari gara, ikusiko dugu noraino iristen garen. Guretzat zortzikoa osagarria da, lehentasuna beste ontziak dira, gure ikuspuntutik. Egia da zortzikoa polita dela, zortzi neskak batera aritzea, elkarlanean eta motibazio handiarekin. Gainera, niri puntan aritzea, arraun bakarrarekin, asko gustatzen zait.

Hondarribiko traineruan ere hasi zara aurten. Nola sortu da aukera?
Duela bi urte berreskuratu zuten trainerua, eta entrenatzailea ezagutzen dut, oso harreman ona daukat berarekin. Astean behin joaten hasi naiz, Irungo entrenamenduekin uztartuz.

Oso ezberdina iruditu zaizu trainerua?
Erabat. Ez du zer ikusirik. Aulki mugikorrean hankek garrantzi ikaragarria dute. Traineruan ez hainbeste. Arlo fisikoan, esfortzua ezberdina dela esango nuke. Estropadak ere zeharo ezberdinak dira, ziabogekin.

Oraindik ikasten ari naiz, ez naiz askotan atera traineruan. Nire asmoa da ikasten jarraitzea, eta udaran lehiatu ahal izatea. Beste esperientzia bat izango da. Santiagotarrak-eko denboraldia ondo bukatzen baldin badut, behintzat.

Azken urteetan emakumezkoen arrauna indartzen ari da. Hondarribiak bertan egon beharra zuen.
Bai, gainera, hasieran, ez zeuden Hondarribiko emakume asko. Gero eta gehiago gara, pixkanaka. Egia da emakumeen arrauna gora doala, baina are gehiago sustatu beharko lukete, antolatzaileek, babesleek eta komunikabideek. Gizonezkoek lehentasuna dute beti.

Goya saria eskuratu du Javier Agirrek

Argazki zuzendaritza onenaren aitortza eskuratu du irundarrak, *Handia* filmean egindako lanagatik

Irunen izan da Francisco de Goya margolariaren brontzezko irudia. Izan ere, Espainiako Zinema Akademiak urtero ematen duen sarietako bat eskuratu du aurten Javier Agirre Erauso irundarrak, otsailaren 2ko galan. *Handia* euskal filmean egindako argazki zuzendaritza lana aitortu diote. Otsailaren 13an San Juan harriaren irudia jaso du, Irungo Udalaren eskutik.

Euskal zinemagintzaren historian mugarria ezarri du Jon Garaño eta Aitor Arregi zuzendarien Handia filmak. 13 izendapen zeuzkan Espainiako Zinema Akademiaren Goya sarietarako, eta horietatik 10 eskuratu ditu. Zuzendari onenaren eta film onenaren sari nagusiek ihes egin diete, baina arlo teknikoetan, batez ere, Handiaren arrakasta erabatekoa izan da. Sarituen artean egon da Javier Agirre Erauso irundarra, argazki zuzendaritzan egindako lanagatik. Azken urteotan euskal zinemagintzan nabarmendu diren Amama edo Loreak filmetan ere lan egin izan du, lehenago, Agirrek.

Gazte hasi zen zinemagintzan, eta badu ibilbidetxo bat, dagoeneko. Handia filma, hala ere, orain arteko erronka guztietan zailena izan dela aitortu du Javier Agirrek. XIX.mendean kokatutako istorioa da, argi elektrikorik ez zegoen garaian. Erraldoi bat dago, gainera, Europan zehar bidaiatzen duena. Ikusleen eta kritikaren onirritzia jaso du, hala ere, lanaren azken emaitzak. "Egia da Goyak ez direla oparitzen", onartu du Javier Agirrek berak. Bere sariak izan duen oihartzunak ustekabean harrapatu duela ere azpimarratu du, dena den: "Pentsatzen nuen gremioan geldituko zela. Baina izan duen oihartzun soziala harrigarria izan da".

Lehen urratsak, Irunen

Irungo Dunboa ikastetxean izan zuen Agirrek lehen harremana argazkilaritzarekin. Bertan jaso zituen lehen eskolak. Lehen reflex kamera, aldiz, bi anaien eskuetatik jaso zuen. "Mendizaleak ziren, eta Pirinioetara joaten ziren sarri. Ondoren, ibialdiko argazkiak ikusten genituen etxean. Momentu polita izaten zen", azaldu du Agirrek. Bideo kamera bat ere erosi zuten, eta film labur bat egin zuten anaien artean. Ikasketak hautatu behar izan zituenean, ordea, Javier Agirrek ez zuen zaletasun hura kontuan hartu. Elektronika ikasi zuen, Bidasoa Institutuan: "Hura amaituta, ikaskide batek animatu ninduen Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan sartzera".

Andoainen, zinemarekiko txinparta hura garatu zitzaion. "Gogoan dut zinema lengoaia irakasgaiko lehen saioa, Taxi Driver filmarekin. Telebista txiki batean ikusi genuen, baina ondoren etorri zen azalpena gogoangarria izan zen", adierazi du Agirrek: "Argiztapenak pertsonaiaren psikologia irudikatzeko zeukan ahalmenak harrituta utzi ninduen". Gogoan du, era berean, Iparralde Etorbidean zegoen Avenida zinemara joaten zela. "Ikaragarri gustatzen zitzaidan teloia zabaltzen zen unea. Tamalez, hori jada ez da gertatzen", nabarmendu du Javier Agirrek: "Linternarekin errieta egiten zigun gizonarekin elkarrizketa interesgarriak eduki izan ditut, gerora".

Badu beste oroitzapen bat, zinemarekin lotutakoa, bere ibilbidean funtsezkoa izango zena. Zinemara bidean, Fernando Larruquerten Lamia estudioko erakusleihoaren aurrean geratzen zen, txundituta: "Oteizaren erretratu batzuk gogoratzen ditut, ikaragarriak. Zer nolako konposizioak, pertsonaiaren inguruko informazioa emateko gaitasuna zutenak". Pasioz hitz egiten du Javier Agirrek argazkilaritzaz eta zinemaz. Eta gogoan du, artean Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan ari zela, enpresa batean lanean hasteko elkarrizketa egin zuela: "Arduradunak emozioz beterik ikusi ninduen, eta lanpostua ez hartzera eta ikasten jarraitzera animatu ninduen". Badirudi ez zuela hutsik egin.

Dunboa HH

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Euskaraz, Irunen barrena

Barko xar xar bat

Kuba´tik barko xar batian eldu ziren emengo semiak, pakia egin zenian. Orduan eintziren bertsuak:

Barko xar xar batian
iruregun lagun
eztakit zer biraje
atera biagun.
Mariñela gaxuak
egiñ zuek lagun
lenbai-len idorra
arrapa dezagun.

Bakallo usanduna
ustela txardiña
ora ere ez naikua
iltzenian piña
urrutira botatzen zuen
usaia zikiña.

Ezurra ugari ta
azala geyago
bizarraren tartetik
ez nago ayako.

Gurasuak orduan
Semiak bazterrian
Eziñ alkar ezagutu
Figura txarrian.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959-VIII-27). Amari ikasi zion. (El Bidasoa, 1960-I-2)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

San Vicente DBH3

Durangoko Azoka

Durangoko Euskal liburu eta disko azoka Euskal herriko azoka handiena eta garrantzitsuena da.Urtero abenduan egiten da, eta nobedadeak eta beste urteko liburu eta diskak saltzen dira.

Lehen edizioa 1965eko azaroaren 1ean izan zen.1980an azoka abenduan egiten hasi zen.

Azoka egin zen lehen aldietan,(1974-1996) merkatu plazan kokatu zen. Azken urteetan Landako izeneko areto berezi batean eta inguruko beste eraikin batzuetan egiten da.

Jon Bilbao Azkarreta Durangoko Gerediaga Elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Elkarte hau da hasieratik gaur arte azokaren antolatzailea. Berak jaso zuen 1992an azokan banatzen den sari inportantea: Argizaiola saria. Beste urte batzuetan sarituetako batzuk hauek izan dira:

1994: Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia

1995: Fernando Larrukert, Nestor Basterretxea, Euskadiko Filmategia…

1999: José María Jimeno Jurio

2001: Juan San Martin

2004: Txillardegi

2005: Gotzon Garate

2009: Euskal Herriko andereñoak

2010: Imanol Urbieta

2012: Benito Lertxundi

Aurten San Vicente de Paul ikastetxeko 3.DBHko ikasleak egon gara eta primeran pasa dugu.

Arnasberritzeko ahaleginean dabil Betti Gotti

Udalekuetako begiraleak hautatzeko prozesu betean dago elkartea

Bilera irekia deitu zuen Betti Gotti Euskara Kultur Elkarteak urtarrilaren 26an, elkartearen egoera, helburuak eta jarduerak azaltzeko, eta kide berriak erakartzeko. Orain, kaptazio kanpaina betean dago elkartea, udalekuetarako begiraleak hautatzeko. Otsailaren 16an eta 17an egingo dute lehen fasea, talde elkarrizketa moduan.

Joxeja Zabalo elkarteko kideak onartu du elkartea momentu delikatuan dagoela. Udalekuetako begiraleak lortuko dituzte, horren inguruko zalantzarik ez du. Eguneroko lanean, ordea, bost lagun besterik ez dabiltza. "40 ere izan ginen garairik onenetan", aitortu du: "Errelebo bat behar da, hori da sanoena edozein elkarterentzat. Bestela ez dago aurrera egiteko modurik". Urtarrilaren 26ko bilerara, ordea, sei lagun besterik ez ziren hurbildu. Horietatik bik ondo ezagutzen dute Betti Gotti, nerabeentzako ekimenetan parte hartu izan dutelako. "Haien adinekoen artean interesa izan dezakeen beste baten bat egon daiteke, beharbada", iradoki du Zabalok.

"Errelebo bat behar da, hori da sanoena edozein elkarterentzat"

"Aurten esan dezakegu dagoeneko lanean ari garela, Herri Bazkaria antolatzeko"

Joxeja Zabalo, Betti Gottiko kidea

Bileran agertu ziren beste lauak, Irunen abiatze prozesuan dagoen beste euskara elkarte bateko kideak izan ziren. "Gurekin kontaktua egin nahi izan dute, ikusteko gu nola gauden, eta haien proiektua azalduz", adierazi du Joxeja Zabalok. Ekimen horren balorazio baikorra egin du: "Ikusten dugu arduratuta daudela, gu bezala, euskararen egoerarekin, eta administrazioaren aldetik euskararen alde egiten denarekin. Kezka nagusiak berdinak dira. Bat egiten dute gure ekintzekin, baina haiek beste alde batetik joko dute".

Euskarak hirian bizi duen egoerarekiko kezka nabarmendu du Betti Gottik, hain zuzen ere, azken kanpainan. Azken ikerketa soziolinguistikoen arabera erabilerak apur bat gora egin badu ere, gazteenen artean egoerak okerrera egin duela uste du Zabalok: "Joera handia dago beste hizkuntzetara jotzeko. Eta joera hori oso kutsakorra da. Gazteen aisialdiko ituriak erdal mundukoak dira". Etorkizuna gazteen esku dagoela konbentzituta daude Betti Gottin, eta haiekin lanean jarraituko dute, beraz.

Hurrengo erronka, kaptazioa

Udalekuetarako begiraleen hautatze prozesuan murgilduta dago Betti Gotti. Otsailaren 16 eta 17an talde elkarrizketak egingo dituzte, izena eman duten gazteen artean. "Beste eskualdeetako jendea etortzen zaigu, eta hori oso aberatsa da, batez ere, euskalki ezberdinak ezagutzeko", azaldu du Joxeja Zabalok. Elkarrizketa horietan aukeratutako lehen gazte multzoarekin, elkarbizitza irteera bat egingo dute gero, apirilaren 13tik 15era, Goizuetan. Hautatze prozesuaren parte izango da, eta bertatik aterako da begiraleen behin betiko taldea. Hemezortzi begirale inguru behar dituzte, Betti Gottiko kideak barne.

Udaran izango dira udalekuak. Baina lehenago, sanmartzialetako Herri Bazkaria antolatuko du Betti Gottik. "Iaz bertan behera geldituko ote zen zurrumurruak zabaldu ziren hirian. Aurten esan dezakegu dagoeneko lanean ari garela". Denborarekin ari dira, sorpresa handi samar bat prestatzen ari direlako. "Urtetako lanketa izan da, aurten emaitza izan dezan espero dugu, oso goiz hasi garelako udalarekin biltzen", aipatu du Joxeja Zabalok. Oraindik ezin izan du beste ezer aurreratu.

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gazte Artean Expo: BERSKATE

Duela urte batzuk Alexander Arocenak BERSKATE proiektua sortzen du, denborarekin zaharkitzen diren irristaulak zaharberritzeko asmoarekin. Egurrezkoak izaki, erabilerarekin, pitzatzen eta itxusitzen joaten dira taulak, horregatik mugatua da beraien bizitza.

Bere taula zaharretako bat zaharberritzeko prozesuan konturatzen da, bere aurrean irekitzen zaizkion aukerez. Garbitu, moztu, margotu edo elementu berriak erantsiz, modu dibertigarri eta erabilgarrian eraldatuz, pertsonalizatu egin daitezke. Muturreko modu kaotikoan berezko nortasuna duten taulak sortuz. Berriro jaiotzen dira.

Egunak: otsailak 17 - martxoak 18
Ordutegia: Asteartetik ostegunera: 17:00-20:00; Ostirala eta larunbata: 17:00-21:00
Lekua: Martindozenea Gaztelekua

TAILERRA:
Eguna: otsailak 22
Ordutegia: 18:00 - 20:00
Lekua: Martindozenea Gaztelekua

Irungo Gazte Boluntariotza

Boluntariotza ez da bakarrik gizartearengandik jasotakoa bueltatzeko esker oneko ekintza solidarioa.

Boluntariotza geure bizitzan ikuspegia zabaltzeko modu bat da.

Gure egunerokotasunean ikusten ez ditugun errealitateen inguruan sentsibilizatzen gaitu, eta gure barnearekin konektatzen gaitu, bai eta gurekin interes komunak dituzten pertsonekin ere.

Ba al zenekien gure eskualdean boluntariotza egiteko elkarte mordoa dagoela? Ezagutzen al dituzu euren lan esparruak?

Gaur egun esparru hauetan boluntariotza premia bereziak dituzte:
- Gaixotasunak
- Bazterkeria egoera (edo arriskuan) dauden pertsonekin
- Kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloan
- Larrialdiak/Babes zibila

Baina ez dira aukeran dauden eremu bakarrak! Edozein momentu da aproposa boluntariotzan hasteko.

Mugaz gaindiko grafiti lehiaketa

"Egunsentia edo ilunabarra Txingudiko badian".

Baldintzak:
- Lehiaketan parte hartzen duen bakoitzak BOZETO BAKARRA aurkeztuko du, tamaina txikikoa.
- Irabazleak Bidasoako Interpretazio Zentroaren pertsianan benetako tamainan grafitia egiteko aukera izango du.

Adina: 16 -30 urte

Saria: 200 euro

Epea: martxoak 28

Informazio gehiago:
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa, Iparralde hiribidea, z.g. -Kostorbe eraikina- Irun, Tel.: 943.633.963
- Bidasoako Interpretazio Zentroa, Iparralde hiribidea 63 - Irun.
Tel.: 943.505.826 e-maila: consorcio@bidasoa-activa.com Web-a: www.irunhondarribiahendaye.com.

Mikromezu eta Irudi Grafikoen Lehiaketa. Kontsumitzaileen Eskubideen Nazioarteko Eguna

Leloa: "Kontaiguzu nolako esperientzia duzun kontsumoarekin..."

Epea: martxoak 5a baino lehen

Norentzat: 10-17 urteko gazteak

2 modalitate:

Mikromezuak: 400 karaktere gehienez
- 1.go kategoria: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleak eta DBHko 1. mailakoak . Saria: 2 tablet Samsung Galaxy, hizkuntza bakoitzeko bana
- 2. kategoria: DBHko 2, 3 eta 4. mailetako ikasleak. Saria: 2 ordenagailu eramangarri, Nvidia GeForce txartel grafikaorekin, hizkuntza bakoitzeko bana.

Irudi grafikoa: 4-17 urteko gazteak
1.go kategoria: Bideoa. Saria: Go-Pro Kamera
2. kategoria: Argazkia. Saria: Bluetooth alanbre gabeko handigailua

Pentsatu eta ekin, euskaraz edo erderaz, 400 karaktere gehienez, argazki edota bideo bat. Parte hartu!

Zure mezuak bidali:
Posta elektronikoaren bidez: omic@irun.org
Whatsapp bidez: 673 102470
Eta zure argazki edota bideoak?

Zure instagrameko profilera igo itzazu hashtag #Kontsumo10Irun, gure profila @irun_informa jarraituz

Otsailak

16

Duo Nuri kontzertuan

Zer:
Duo Nuri , Maddi Sanzek (arpa zeltiarra) eta Ismael Cabaleirok (bibolina) osatutako bikotea da."Alalá" lehendabiziko lana aurkezten dute: Euskal Herriko eta Galizako kanta herrokoiak, taldeari moldatuak eta jatorrizko konposaketak. Folk, jazz eta pop konbinazioa, publiko guztiarentzat egokia.

.**Ordua:**
23:30ean

Lekua:
Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan

Prezioa: Doan

17

Zinema

Zer:
"Operation Arctic" Grethe Bøe-Waal
Norvegia, 2014; 87 min.

Ordua:
11:00etan.

Non: CBA Udal Liburutegian

San Juan plaza, -1 solairua

Prezioa: Doan

Informazio gehiago:
www.irun.org

18

Landetxako Inauteriak

Desfilea, 11:30etik aurrera, Errotazarretik abiatu, eta, Andrearriaga ibilbidean eta Erroiarri eta Bizkaia kaleetan barrena, frontoiraino joango da, eta, han, bere lana gainerakoei erakusteko aukera izango du konpartsa bakoitzak: emanaldi txiki baten bidez.

Ondoren, hamaiketakoa banatuko zaie parte hartzaile guztiei, eta diskofesta bat izango da, 12:30etan frontoian, konpartsa guztiek elkarrekin gozatzeko.

Otsailaren 17tik martxoaren 18ra arte

Berskate erakusketa

Zer:
Erakusketa: BERSKATE Project, Skate taula birziklatuak, berrerabilpena, kustomizazioa

Non:
Martindozenea
Gaztelekua
Elizatxo, 18 - Irungo La Salleren ondoan

Ordutegia:
Asteartetik ostegunera: 17:00-20:00; Ostirala eta larunbata: 17:00-21:00

Prezioa:
Doan

Maiatzaren 6ra arte

Carmen Mauraren Margo Erakusketa

Artista hondarribiarraren erakusketa antologikoa, bere ibilbide artistikoan zehar. 1975-2017

Ordutegia:
O/L: 18:00-21:00; I eta jaiegunak: 11:30-13:30

Non:
Menchu Gal Erakusketa Aretoa
Urdanibia, z/g

Prezioa:
Doan

26-27

Turislan II 2018ko otsailaren 26 eta 27an egingo da Ficoban

Turislan topagune bat da, enplegua bilatzen ari direnen eta turismo-sektorean zerbitzua hobeto emateko langileak kontratatu behar dituzten enpresen artean egiten dena.

Enplegua bilatzen ari direnei zuzenduta egoteaz gainera, plataforma ezin hobea ere bada turismoaren sektorean garapen profesionalerako zer gaitasuna duten jakin nahi duten pertsonentzat eta turismoaren sektorean lanean hasteko orientazioa behar duten ekintzaileentzat.

Gainera, turismoaren sektorean berariazkoa den enplegu-azoka hau turismoaren sektoreko gai interesgarri nagusien inguruan eztabaidatzeko eta ezagutzak trukatzeko gunea ere bada. Aurten, Turislan II topaguneak bereziki azpimarratu nahi ditu Gipuzkoan turismoaren sektorea garatzeko ezinbestekoak diren bi alderdi: PRESTAKUNTZA eta JASANGARRITASUNA.

Sarrera: Doan

Zure seme-alaben lehen jaunartzearen oroitzapen polita eduki nahi duzu?

ESKATU INFORMAZIOA ETA HITZORDUA HARTU!

JAUNARTZE
ERREPORTAJEAK
100€tik AURRERA

Gover
ESTUDIO
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com
Fernando Vergara
fotógrafo
Avda. Letxunborro 100-2ºdcha 20305-Irun
943 840 113 - 647 930 484